

**2017-2018 IKASTURTEAN DOKTOREAK EZ DIREN
IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO
PROGRAMARAKO DEIALDIA:
LAGUNTZA BERRIAK**

Laguntzen modalitateak:

Ezarpen-zentroaren kokapena	Laguntza Berrien linea
EAE	A modalitatea
Estatuko gainerako erkidegoak	B modalitatea
Atzerria	I modalitatea

Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:

Hiru modalitateetan, laguntzek lanaldi osoko doktoratu aurreko kontratuen ezaugarri berak izango dituzte, laguntzak jasotzen diren aldi osoan. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta beste hiru aldiz luzatu ahal izango da, aldi bakoitzean urtebetez.

Urteko ordainsari gordina 14.545,80 eurokoa izango da A eta B modalitateetan, eta 18.182,25 eurokoa I modalitatean.

Horrez gain, laguntzek erantzukizun zibilaren eta istripuen aseguru bat barne hartuko dute. I modalitateak bidaiako laguntza aseguru bat barne hartuko du, baita gehigarri bat ere, joan beharreko zentzora egin behar den joan-etorriko bidaiaria bat finantzatzeko urtean.

Hautagaien betekizunak:

Deialdiko oinarrien 25. artikulua kontsultatzea gomendatzen da:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/06/1702700e.pdf>

Eskaerak aurkezteko modua eta epea:

Hautagaia arduratuko da eskaera betetzeaz, formulario elektronikoaren bitartez, eta eskaera erregistratu ere egin beharko du, 22.2 eta 22.3 artikuluetan adierazitako bideetako edozein erabiliz. Horretarako epea **2017ko uztailerren 3an, astelehena, amaituko da (egun hori barne).**

Erregistroa Euskal Herriko Unibertsitatearen Erregistro Bulegoetan egin ahalko da, eskatzailearen ezarpen-zentroa bada:

- Arabako 01 erregistro-bulegoa (Arabako Campuseko Errektoreordetza, Izardui komandantea 2, 01005 Vitoria-Gasteiz).
- Gipuzkoako 02 erregistro-bulegoa (Ignacio M.^a Barriola gelategia, Elhuyar plaza 1, 20018

- Donostia).
- Bizkaiko 03 erregistro-bulegoa (Errektoretza, Sarriena z.g., 48940 Leioa)
- Bizkaiko 04 erregistro-bulegoa (Larrako Etxea, Agirre Lehendakariaren etorbidea 83, 48015 Bilbao).

GARRANTZITSUA:

UPV/EHUko konpromiso dokumentua eskuratzeko izapideak:

Deialdiaren 27.6 artikulua adierazten duen moduan, UPV/EHUrak atxikitzea aurreikusita duten eskatzaileen kasuan, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak ofiziozko konpromiso dokumentua eskatuko du; horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara joko du zuzenean. **Beraz, eskatzaile horiek ez dute aipatutako dokumentua erantsi beharko aplikazioan.**

Harremanetarako:

Konsultak Eusko Jaurlaritzako "Zuzenean" zerbitzura bideratuko dira:

- EAEtik: 012
- EAE kanpotik: 945 018000
- Atzerritik: 00 34 945 018000

Informazio gehiago:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/diru_laguntza/2017/predoc-berri/r43-573/eu/